



ALTZAGAKO UDALA
20240 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

SOINKETA ARETOA ERABILTZeko ARAUAK

ORDUTEGIA: Soinketa aretoa zabalik egongo da goizeko 7:00etatik 22:30etara, astelehenetik igandera bitartean.

a) Soinketa gunean sartu ahal izateko, 16 urte baino gehiago izan beharko da, beti ere, kasu berezietan salbuespenak egiteko aukera izango duelarik udalak. Hala nola, kirolari gazteak...

b) Soinketa gunean sartu ahal izateko, giltzaren jabe izan beharko da eta sarreraren dagoen irakurgailutik pasa behar da giltza elektronikoa. Giltza eskuratu ahal izateko eskaera udalean egin beharko da. Altzagan erroldatutakoek bakarrik eskuratu ahal izango dute giltza. Giltza eskuratzen 11€ ordaindu beharko dira. Giltza galtzen bada, herritarraren ardura da honen berri ahalik eta azkarren udalari jakinaraztea. Giltza eskuratzeko udalarekin zergen ordainketan egunean egon beharko da. Erabiltzaileak soinketa gela sartzen eta ateratzen den bakoitzean ateko irakurgailutik giltza pasatu beharko du (sarrera eta irteera erregistratuta gelditu daitezzen). Giltza titularrak bakarrik erabili ahal izango du eta ez du inolako beste kiderik berarekin sartuko.

c) Gelako materiala erabiltzaileen erabilgarri egongo da; beraiei dagokie behar bezala erabiltzea. Zabarkeriagatik nahiz erabilera okerragatik materialari eragindako kalteak erabiltzaileek ordaindu beharko ditu.

d) Erabilitako materiala bere lekuan utzi behar da.

e) Derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea makina guztietan, higiene-arrazoiak tarteko. Era berean, makinak erabili ondoren, makinetan utzitako izerdia lehortu beharko da, (horretarako papera erabiliz eta ez eskuoihala).

f) Kirol-oinetako egokiak erabili beharko dira.



ALTZAGAKO UDALA
20240 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

g) Erabiltzaileak, beste inor zai balego, 30 minutu ondoren erabiltzen ari den makina uzteko beharra izango du.

h) Debekatuta dago gelara motxilak, kristalezko botilak eta janaria sartzeari. Ura soilik sartu ahal izango da. Debekaturik geratzen da aretoan erretzea eta alkoholdun edariak sartzeari eta kontsumitzea.

i) Makinak ezin dira bere lekutik mugitu.

j) Edozein jarduera fisiko hasi aurretik, gomendagarria da hasierako mediku-azterketa egitea. Instalazioak ez du bere gain hartuko kirol-jardueren erantzukizunik.

k) Instalazio hauek erabiltzeko, mantenuko kuota bat ezarriko da, berau, urtean 60 €koa izango delarik. Bi kuota pasako dira urtean, bat Urtarrila-Ekaina bitartean eta bigarrena Uztaila-Abendua, kuota bakoitza 30€-koa. Kuota osoak ordainduko dira ez dira zatikatuko denboraldia bere osotasunean ez disfrutatzeagatik. Kuota ordaintzen ez duenari Udalak giltza baliogabetuko dio.

l) Jarduera fisikoa egin ondoren, erabilitako instalazioen fitxa bete beharko da.

m) Soinketa gunean, taldekako ekintzak antolatu daitezke, hala nola ikastaroak etab.... Taldekako ekintzek lehentasuna izango dute norbanako ekintzen aurrean.

n) Udalak ez du ardurarik izango gimnasioan gerta daitezkeen ondoeza, istripu eta ustegabeko gertaeretz.



ALTZAGAKO UDALA
20240 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

o) Derrigorrezkoa izango da txukuntasuna eta gainontzeko erabiltzaileekiko errespetua mantentzea.

p) Debekaturik geratzen da gimnasioan edozein instalazioetan animalien sarrera, -txakur itsu-gidariak izan ezik.

r) Erabiltzaileak, sortu ahal lezaken edozein hondakin behar bezala sailkatu eta dagokion lekuan ontziratzeke betebeharra izango du.

s) Erabilera amaitu ostean, erabiltzailea argi guztiak itzaliak eta ate eta leiho guztiak itxiak geratzeaz arduratuko da.

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

1. artikulua.

Aurreko ataletan ezarritako araudia ez betetzeak, erantzukizun administratiboa izango du, honako sailkapenaren arabera:

1. Hauste arinak.

a) Sarrerako txartelaren galera.

b) Instalazioen erabilera desegokia eta ekipo eta gainontzeko erabiltzaileenganako errespetu falta.

c) Edozein instalaziotan sarrera debekaturik duten pertsoneri sarrera ahalbidertzea.

d) Zentroaren mantenuan eta energia kontsumoan eragin dezaken utzikeria.

e) Araudi honetan debekatuak izan diren ekintzak burutzea, edozein eratakoa delarik ere.



ALTZAGAKO UDALA
20240 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

2. Hauste larriak.

- a) Aurreko ataleko berberak, kalteak eragin diren kasuetan.
- b) Hiru arauhauste arinen bateratzea, arauhauste larritzat tratatuko da.

2. artikulua.

Udalak, nahiz ofizioz, nahiz partikularrek egindako salaketaren ondorioz, ordenantza hausteak zigortzeko prozedurari hasiera emango dio. Eraikinaren, eta bertako osagaien aurka egindako egintzak, delitu edo falta izan daitezkeenean, eskumena duen Aginte Judizialari dagokion txostena igorriko zaio, eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean, ez da salaketa prozedurarekin jarraituko.

3. artikulua.

Arauhausteak, kasua balitz, ondorengo isun hauekin zigortuko dira:

- Hauste arinak, 0€TIK 30€ bitarteko isuna.
- Hauste larriak, 30 €tik 300 € bitarteko isuna.

Isun hauez aparte, arau hausleak, Udalari Ertoetxe eraikineko instalazioetan eragindako kalteen eta matxurengatik, erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginen zenbatekoaren kalte ordaina emango dio.

4. artikulua.

Arauhauste larriak, dagokion isunaz gain, aldi baterako, edota kasu bada, betirako sarrera galeraztea ekar lezake erabiltzailearenganako.

BUKAERAKO XEDAPENA. artikulua.

Udalak ahalmena du, erregelamendu hau interpretatzerakoan sor litekeen edozein arazo konpontzeko.



ALTZAGAKO UDALA
20240 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau indarrean sartuko da, behin bere testua osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta Erregimen Lokalari buruzko oinarrien Lege Erregulatzaillearen 70.2 artikuluaaren tramiteak betetzen direnean.